Lezoko Unibertsitateko Udala

ZER BERRI LEZON?

LEZOKO UDAL ALDIZKARIA REVISTA MUNICIPAL DE LEZO

14´

MARTXOA 2023 MARZO

# ARRAITOKI, LEZORENTZAT

## ARRAITOKI ES DE LEZO



**BERTAKOENTZAT APARKATZEKO ZONALDE BERRIAK**

NUEVAS ZONAS DE APARCAMIENTO PARA RESIDENTES

3

**KIROLA EGITEKO AUKERA UGARI LEZON**

MUCHAS FORMAS DE HACER DEPORTE EN LEZO

4

**DESKARGATU ETA IRAKURRI ALDIZKARIA ZURE MUGIKORREAN**

DESCARGA Y LEE LA REVISTA EN TU MÓVIL

@lezo_udala

@LezoUdala

@LezokoUdala

Lezoko Udala
Gurutze Santuaren Plaza, 1
20100 Lezo
943 524 650
www.lezo.eus



# Legealdia amaitzear

# Acabando la legislatura

**Jesus Mari Martiarena**
**Lezoko Alkatea**

"Zer berri LezOn" aldizkari honen 14. alean hirigintzako gaiak, kirolaren inguruko berriak, Oarsoaldeakoak... prestatu ditugu. Legealdia amaitu aurretik, hainbat proiektu martxan jartzeko aukera izango dugu gainera eta Lezoarrek horien berri izatea nahi dugu.

Alde batetik, Altamirako igogailu berriaren obrak amaitu ditugu. Proiektu oso garrantzitsua herriarentzat, irisgarritasuna sustatzen duena.

Altzaten eta Olatzarren eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzen obrak aurrera doaz ere.

Arraitoki herriari lagatzeko lanetan ibili naiz azken urteetan eta, azkenean, lortu dugu. Gune bikaina da herriarentzat eta bertan dozenaka proiektu gauzatu daitezke.

Ez hori bakarrik, Udal Gobernura iritsi ginenean, Udalak 3,6 milioi euroko zorra zuen eta 2023. urtean, herriak ez du zorrik. Gainera, tasak izoztuak mantendu ditugu. Etorkizunari ilusioz begiratzeko moduan gaude.

En este número 14 de la revista, tratamos temas de urbanismo, de deporte, de la comarca de Oarsoaldea... Además, antes de terminar la legislatura, podremos presentar algunos proyectos y queremos informar a los y las lezoarras.

Por un lado, las obras del nuevo ascensor de Altamira están terminadas. Se trata de un proyecto muy importante que mejora la accesibilidad.

Continúan adelante también las obras de las VPO que se están construyendo en Altzate y Olatzar.

He trabajado duro para conseguir que Arraitoki fuese para Lezo y, finalmente, lo hemos conseguido. Es un espacio idóneo para el pueblo y en el que se pueden llevar a cabo muchos proyectos.

No solo eso, cuando entramos al Gobierno Municipal, el Ayuntamiento tenía una deuda de 3,6 millones de euros. En 2023 la deuda se ha reducido a cero. Además, hemos mantenido las tasas congeladas. Debemos mirar con ilusión al futuro.

## Altamirako igogailu berria, ia prest

Lezoko Udala Altamirako bigarren igogailua egiteko obrak amaitzen ari da. Pasarela amaitua dago eta azken ukituak bakarrik falta dira. Lanen helburua, auzoaren irisgarritasuna hobetu eta ingurua eta parkea berreskuratzea izan da. Azpimarratu behar da Altamira etxebizitza ugari dituen auzoa dela eta bizilagunek beti adierazi dutela irisgarritasun-arazo handiekin bizi direla.

Eusko Jaurlaritzatik 300.000 euroko dirulaguntza jasoko da lan hauek ordaintzeko. Gainera, herriko irisgarritasuna hobetzeko lanketan jarraituko du Lezoko Udalak.



## En breve estará en marcha el nuevo ascensor de Altamira

El Ayuntamiento de Lezo ultima las obras de construcción del segundo ascensor de Altamira. La pasarela está terminada y sólo faltan los últimos retoques. El objetivo de los trabajos es mejorar la accesibilidad del barrio y recuperar el entorno y el parque. Hay que destacar que Altamira es un barrio con numerosas viviendas y los vecinos y vecinas siempre han manifestado que viven con grandes problemas de accesibilidad.

El Gobierno Vasco dará una subvención de 300.000 euros para la realización de estos trabajos. Además, el Ayuntamiento de Lezo seguirá trabajando en la mejora de la accesibilidad en todo el pueblo.



Argazkian Jesus Mari Martiarena Lezoko alkatea, Igor Ugarte (Udaltzainburua) eta Joxean Sanchez (Ingurumen gaietako zinegotzia)





## Bertakoentzat aparkatzeko 2 zonalde berri

Lezoko Udalak aparkaldi mugatua arautzeko ordenantza berriari onarpena eman dio. Erabaki hori Mugikortasun Planean oinarrituta dago, eta horretarako, aurrediagnostiko bat eta mugikortasun-diagnostiko bat hartu ziren abiapuntu.

Plan horretan, herritarrei inkestak egin zitzaizkien zituzten beharrak jakiteko eta gizarte-eragileekin partaidetza-prozesu bat egin zen.

Plana gauzatzeaz arduratu zen enpresak, aparkaleku-plazen kopurua aztertu eta horien okupazio-maila erregistratu zituen ordu-tarte desberdinetan (goizez, arratsaldez eta gauez), bai eta horien txandakatzea ere, bai lanegunetan, bai larunbatetan. Ibilgailuen jatorriak ere, aztertu ziren eta alboko herrietako kotxe askok herrian aparkatzen zutela ziurtatu zen.

Datu guzti hauekin, aparkatzeko 2 zonalde berri ezarriko dira herrian bertakoentzat.

Hortaz, 3 zonalde izango dira guztira:

- **1. zonaldea:** Tomas Garbizu kalea (1 zenbakitik 20 zenbakira).
- **2. zonaldea:** (Polentzarreneko kale hasieratik, kale Nagusia 25 zenbakiko garaje sarreraraino), Guillermo De Lazon kaleko aparkaleku guztiak (1etik 20ra) eta Hipolito Gezala kaleko aparkaleku guztiak.
- **3. zonaldea:** Zubitxo kaleko aparkalekuak (23 zenbakitik 37 zenbakira) eta Elias Salaberria kaleko aparkalekuak (1 zenbakitik 14 zenbakiraino kaleko bi aldeetan).

Zonalde hauetan aparkatzeko ordutegia 20:00etatik 08:00etara izango da. Ordutegi horretan, dagokion udal baimena dutenek soilik aparkatu ahal izango dituzte euren ibilgailuak.

Txartela eskuratzeko eskabidea udal bulego orokorrean egin beharko da eta 10 euroko prezioa izango du. Eskatutako baldintzak aldatu ezean, txartela behin onartuta, iraunkorra izango da.

Aldez aurretik jakinaraziko da noiz eska daitekeen eremu horietako egoiliarren txartela.

## Dos zonas nuevas de estacionamiento para residentes

El Ayuntamiento de Lezo ha aprobado la nueva ordenanza reguladora del estacionamiento limitado. Esta decisión está basada en el Plan de Movilidad, en el que se partió de un prediagnóstico y de un diagnóstico de movilidad, en el cual se realizaron encuestas a la ciudadanía para conocer sus necesidades y se hizo un proceso de participación con agentes sociales.

La empresa encargada de llevar a cabo el plan analizó el número de plazas de aparcamiento existentes en Lezo y su nivel de ocupación en diferentes franjas horarias (mañana, tarde y noche) así como la rotación de las mismas tanto en días laborales como los sábados. También se analizó la procedencia de los coches y se comprobó que muchos vehículos que aparcan en Lezo son de municipios colindantes.

Con todos estos datos se ha decidió habilitar 2 nuevas zonas de aparcamiento para residentes en el pueblo.

Por lo tanto, habrá un total de 3 zonas:

- **Zona 1:** calle Tomás Garbizu (del nº 1 a 20 de dicha calle)
- **Zona 2:** calles Polentzarrene (desde el inicio de la calle hasta la entrada de garaje de la calle Mayor 25), Guillermo De Lazón (del número 1 al 20) y a todos los aparcamientos de la calle Hipólito Gezala.
- **Zona 3:** calle Zubitxo (nº 23 a 37) y calle Elías Salaberria (nº 1 a 14 a ambos lados de la calle).

El horario de estacionamiento en estas zonas será de 20:00 a 08:00 horas. En este horario sólo podrán estacionar aquellos vehículos que dispongan de la correspondiente autorización municipal.

La solicitud de la tarjeta deberá realizarse en las oficinas del Ayuntamiento y tendrá un precio de 10 euros.

Si no se modifican las condiciones exigidas, una vez aceptada la tarjeta, será permanente.

Se avisará con tiempo de antelación cuándo se puede solicitar la tarjeta de residente de estas zonas.





Argazkian Irlentz Ortega, Kirol zinegotzia

## Kirola Lezon egiteko, aukera ugari

Lezoarren artean bizitza aktiboa sustatzeko apustuarekin jarraitzen du Lezoko Udalak. Horretarako, adin guztietarako jarduera ezberdinak programatuta ditu.

Horien artean nabarmentzekoak dira Tipi-Topa eta Martxan, Nordik Walking, bizikleta elektrikoen mailegua, Emakume Korrikalariak, Kirol Orientazioko Zerbitzua, UDA kanpaina, Eskola Kirola programa, Bekoerrota Kiroldegiko jarduera eta instalazioak, udal igerilekuak eta abar.

Irlentz Ortega Kirol zinegotziak adierazi duenez, "lezoarrengan bizimodu aktiboa eta osasungarria sustatzeko eta kalean eskuragarri dagoen ekipamendua hobetzeko lanean jarraitzen dugu. Jendea mahai tenisean jolastera hurbiltzen ari zela ikusi genuen, hori dela eta, hondatutako mahai bat berritu eta beste bat jarri nahi izan dugu Lezon".

Era honetan, kiroldegian bat jarri da eta bestea Altamiran, harrera-etxearen ondoan.

### Footcab mahaiak

Berrikuntza gisa, Footcab-eko bi mahaitan inbertsioa egin da. Oso modalitate dibertigarria da, oinekin edo buruarekin ping-pong antzean, baloi batekin jolastea da.

Mahai horietako bat Altamiran jarri da eta bigarrena Lopene plazan.

Kirol batekin edo edozein jarduerarekin, helburua "muitzea" da, eta ez geldirik geratzea; gozamena bilatu eta bizimodu osasungarria sustatu.

## Variedad de opciones para hacer deporte, en Lezo

El Ayuntamiento de Lezo continúa con su apuesta firme de fomentar una vida activa entre los y las lezoarras. Para ello, tiene programadas diferentes actividades para todas las edades.

Entre ellas destacan Tipi-Topa y Martxan, Nordik Walking, el préstamo de bicicletas eléctricas, Emakume korrikalariak, el Servicio de Orientación Deportiva, la campaña UDA, el programa Eskola Kirola, las actividades e instalaciones del Polideportivo Bekoerrota, las piscinas municipales...

Irlentz Ortega, concejal de Deportes, afirma que "seguimos trabajando por fomentar un estilo de vida activo y saludable entre los y las lezoarras y en mejorar el equipamiento disponible en la calle. Vimos que había personas que se acercaban a jugar a tenis de mesa a las mesas que había y hemos querido renovar una mesa deteriorada y colocar otra nueva en Lezo".

De esta manera, se ha colocado una en el polideportivo y la otra en Altamira, al lado de la casa de acogida.

### Mesas de Footcab

Como novedad, se ha invertido en dos mesas de Footcab. Se trata de una modalidad muy divertida en la que se juega a ping-pong con los pies o la cabeza.

Una de estas mesas se ha colocado en Altamira y la otra en Lopene plaza.

Ya sea con un deporte u otro o con cualquier actividad, el objetivo es "moverse y no quedarse quietos"; buscar el disfrute y para fomentar una vida saludable.

# ALDERDI POLITIKOAK

5

Maiatzaren 28an udal hauteskunde berriak egingo dira herrian. Guztion begirada data horretan zentratua badago ere, lan handia burutu behar dugu aurretik.
Altamirako igogailu berria martxan jarriko da laster, Olatzar eta Altzateko babes ofizialeko etxebizitzen obrak aurrera doaz, Aralar kalean zuzkidura-bizitokiak eraikitzen ari gara, anbulatorio berria eraikiko dugu herrian, trafiko eta aparkalekuen arazoei konponbidea bilatzeko buru-belarri ari gara egunero...
Guzti hori, haur, nerabe, gazte eta helduen, herri honetako gizon-emakumeen ongizatea bermatuz. Gobernura iritsi ginenean Lezoko Udala zorpetuta zegoen, gaur egun, ordea, zorra zero eurokoa da. Eta tasak izoztuak mantendu ditugu azken 8 urtetan.
EAJ-PNV taldeak Lezoren ongizatea sustatzeko lan egin du beti eta bide berean jarraituko du, herria hobetzen segitzeko. Horretarako, Jesus Mari Martiarena izango da gure alkategaia, ilusio handiz herriarengatik eta herriarentzat lanean ari den eta aurrera egingo duen laguna.

El 28 de mayo se celebrarán las elecciones municipales en Lezo. La mirada está puesta en esa fecha, sí, pero antes de ello, tenemos mucho por hacer.
El nuevo ascensor de Altamira se pondrá en funcionamiento próximamente, los trabajos de VPO de Olatzar y Altzate continúan adelante, estamos construyendo apartamentos dotaciones en Aralar, donde también tendremos un nuevo ambulatorio, trabajamos para solucionar problemas de tráfico y aparcamiento en el pueblo...
Todo ello, garantizando el bienestar de niños y niñas, jóvenes, adultos y mayores, de las mujeres y hombres de Lezo. Cuando llegamos al gobierno, Lezo estaba endeudada y, a día de hoy, la deuda es de cero euros. Teniendo congeladas las tasas en los últimos 8 años.
EAJ-PNV trabaja y trabajará por el bienestar de los y las lezoarras. Nuestro candidato a la alcaldía es Jesús Mari Martiarena, preparado e ilusionado con el reto de seguir avanzando en favor de un Lezo mejor.

Legegintzaldi hau amaitzen ari da eta aurrera begira jarri nahi dugu. Zaintza izango da gure ardatz nagusia: herritarren zaintza, ingurunearen zaintza eta zaintzarako azpiegiturak. Zalantzez eta ziurgabetasunez betetako garai hauetan aurrera egiteko babesa behar dugu. Bizitza hobeak amestera eta bizitzera ausartzeko gutxieneko babesa behar dugu. Hau da gure herriak izatea nahi duguna: babesa ematen digun komunitatea, elkar zaintzen dugun herria. Hau da herritarrei eskaini nahi dieguna: norberaren bizitza proiektua aurrera eramateko herria.
Anbizioa dugu, baina gurea anbizio kolektiboa da. Etorkizun amankomun hobeago baten anbizioa.
Hori guztia gauzatzeko, beste gobernantza eredua behar du gure herriak. Gauzak egiteko, pertsonak tratatzeko, eta eztabaidetan eta erabakietan partaide egiteko eredu berri bat; desberdinen arteko bizikidetzaren eta errespetuaren alde lan eginez. Herritarrak ahaldundu, boterea eurekin partekatu eta adostasun zabalak bilatuko dituen gobernantza eredua.

Esta legislatura se está acabando y queremos mirar hacia adelante. El cuidado será nuestro eje central: el cuidado de la ciudadanía, el cuidado del entorno y las infraestructuras para el cuidado. En estos momentos de incertidumbre debemos sentirnos protegidos. Debemos sentir la seguridad mínima para atreverse a soñar y vivir vidas mejores. Esto es lo que queremos que sea nuestro pueblo: una comunidad que nos protege, un pueblo que nos cuidamos mutuamente. Esto es lo que queremos ofrecer a la ciudadanía: un pueblo para llevar adelante el proyecto de vida propia.
Tenemos ambición, pero la nuestra es una ambición colectiva. La ambición de un futuro común mejor.

Maiatzean udal-hauteskundeak egingo dira, eta, horregatik, gardentasun-ariketa batean, PSE-EEk aldizkari bat postontzietan banatu du, legegintzaldi honetan egindako eta DNA sozialista zuten jarduerak jasotzen dituena.

Estamos orgullosos del trabajo diario llevado a cabo para que Lezo siga avanzando. En minoría en el gobierno municipal, hemos aportado políticas de izquierda y dado la estabilidad necesaria para dar respuesta a los problemas y necesidades de l@s lezoarras en una complicada legislatura condicionada por crisis sanitarias, sociales y económicas. Es cierto que Lezo ha avanzado: ayudando a l@s que más lo necesitaban, impulsando el comercio, creando empleo, fomentando la cultura, el deporte y el uso del euskera en nuestras calles, siendo referente en igualdad y sostenibilidad medioambiental, y todo ello sin aumentar la presión fiscal de los lezoarras y alcanzando una deuda 0 saliendo del pozo de 3.500.000€ de endeudamiento de gobiernos anteriores y llevando a cabo inversiones importantes. En definitiva, haciendo un Lezo cada vez mejor. No obstante, el PSE-EE cree que debemos ser más ambiciosos y poner una marcha más en cuestiones como la regeneración de nuestros barrios y la rehabilitación de sus edificios, dando soluciones realistas al problema del estacionamiento o reforzando las políticas destinadas tanto a nuestros mayores como a nuestros jóvenes.

Horretarako, ilusioz beteriko programa zorrotz bat aurkeztuko dugu, herritarren eta gizarte-taldeen benetako ekarpen eta oinarriak hartuta, beraien beharrei erantzungo diona. Batzuen akiduraren eta besteen populismoaren ke-gortinaren artean aukeratzeko unea da, edo PSE-EEk ordezkatzen duen proiektu eraldatzaile, kolektibo eta errealistaren alde egiteko unea.

# Arraitoki es de Lezo

**Tras mucho trabajo y años de negociación, la Autoridad Portuaria de Pasaia y el Ayuntamiento de Lezo han firmado un acuerdo para la concesión del espacio de Arraitoki al municipio. La administración pública prevé dotar de múltiples usos al terreno para satisfacer las necesidades de los vecinos y vecinas de Lezo.**

**La decisión se tomó tras un Pleno Extraordinario en febrero (en el que EAJ-PNV y PSE-EE votaron a favor y EH BILDU se abstuvo).**

**De esta manera, la Autoridad Portuaria de Pasaia (APP) y el Ayuntamiento de Lezo han firmado un acuerdo para la cesión de forma gratuita del espacio portuario de Arraitoki, ubicado a la entrada del pueblo. La firma la realizaron Joakin Tellería, presidente de la APP, y Jesús Mari Martiarena, alcalde de Lezo.**

**En concreto, se trata de un espacio de 4.422 m2 que se encuentra entre el polideportivo de Bekoerrota y la rotonda de acceso al barrio de Altamira, y que hasta ahora se ha empleado como parking provisional.**

**El alcalde de Lezo ha afirmado que la parcela está "en una ubicación inmejorable y se le darán múltiples usos con el objetivo de cubrir las necesidades presentes y futuras del pueblo. Desde que entramos al Gobierno, hemos trabajado para que Arraitoki fuese para Lezo y, finalmente, lo hemos conseguido".**



Argazkian Joakin Telleria PPAko Presidentea eta Jesus Mari Martiarena Lezoko alkatea

# Arraitoki, Lezorentzat

Asko kostata eta urte askotan negoziatzen ibili ostean, Pasaiako Portu Agintaritzak eta Lezoko Udalak akordio bat sinatu dute Arraitokiko gunea udalerriari emateko. Administrazio publikoak lursaila hainbat erabilerez hornitzea aurreikusten du Lezoko auzotarren beharrak asetzeko.

Otsailean egindako Ezohiko Udalbatza baten ondoren hartu zen erabakia (EAJ-PNV-ren eta PSE-EE-ren aldeko botoekin eta EH BILDU-ren abstentzioarekin).

Hala, Pasaiako Portuko Agintaritzak (PPA) eta Lezoko Udalak akordio bat sinatu dute herriaren sarreran kokatuta dagoen Arraitokiko portu-gunea doan emateko. Sinadura Joakin Telleria PPAko Presidenteak eta Jesus Mari Martiarena Lezoko alkateak egin zuten Udalbatza Aretoan.

Zehazki, 4.422 m2-ko eremu bat da, Bekoerrota kiroldegiaren eta Altamira auzora sartzeko biribilgunearen artean dagoena, eta orain arte behin-behineko aparkaleku gisa erabili dena.

Lezoko alkatearen hitzetan "kokapen ezin hobean dagoen Arraitokiri erabilera anitz emango zaizkio, herriaren egungo eta etorkizuneko beharrak asetzeko. Gobernura sartu ginenetik lanean ibili gara. Arraitoki Lezorena izan behar zuela uste genuen eta azkenean, lortu dugu".

Udalak aurreikusitako erabileren artean daude, ibilgailuentzako doako aparkalekua eta, epe ertainean, kiroldegi publikoa eraikitzea.



# BERRIAK

## Lezoko Udalak bulego berriak ditu

### Nuevas oficinas municipales

Lezoko Udalak bulego berriak ditu Kale Nagusian. Zehazki, Kale Nagusiko 32. zenbakiko beheko solairuan egokitu dira.
Herri erdian dauden bulego hauetan, beste zerbitzuen batzuen artean, Berdintasun saila jarri da. Zenbait zinegotziren bulegoak ere, bertan izango dira.
Azken asteetan eta egindako obren ondorioz, bulegoak txukuntzen eta garbitzen aritu dira, eta datozen asteetan funtzionamenduan jartzea aurreikusten da. Jesus Mari Martiarena alkatearen esanetan: "oso albiste ona da udalarentzat, bulego berriak egiteko tokia behar genuen eta oso ondo kokatuak daude bertan".
El Ayuntamiento de Lezo cuenta con nuevas oficinas en la calle Mayor. En concreto, se han acondicionado en la planta baja del número 32 de dicha calle. En estas oficinas, situadas en el centro del pueblo, se ha habilitado, entre otros usos, el departamento de Igualdad. También estarán presentes los despachos de varios concejales.
En las últimas semanas y a raíz de las obras realizadas, las oficinas se han estado ordenando y limpiando y se prevé que comiencen a funcionar en las próximas semanas. El alcalde, Jesús Mari Martiarena, asegura que "es una muy buena noticia para el ayuntamiento, necesitábamos espacio para nuevas oficinas y están muy bien ubicadas en este sitio".





## Olatzar eta Altzateko babes ofizialeko etxebizitzak, aurrera

### Continúan las obras de las VPO de Olatzar y Altzate

Altzate eta Olatzarren eraikiko diren etxebizitzen lanak aurrera jarraitzen dute.
Altzateko Lezoren zatian, guztira, 3 etxebizitza-dorre eta dagozkien garajeak eraikiko dira. Bertan etxebizitza libreak eta babes ofizialekoak egongo dira. Azken hauek Udalak kudeatu eta zozketa bidez esleituko ditu jabetzan. Olatzar aldean, berriz, 120 etxebizitza garajeekin aurreikusi dira.
Udalak oraingoz ez ditu onartu etxebizitza babestuen kasuan, etxebizitzak esleitzeko zozketetan parte hartzeko bete behar diren baldintzak. Apirilean onartzea aurreikusten da. Informazio guztia eta datak Lezoko Udalaren webgunean argitaratuko dira.
En el tramo de Lezo de Altzate se construirán en total 3 torres de viviendas con garajes. Habrá viviendas libres y de protección oficial. Las VPO serán gestionadas por el ayuntamiento y se adjudicarán en propiedad mediante sorteo. En el área de Olatzar se prevén un total de 120 viviendas y garajes.
Los requisitos que se deben cumplir para participar en los correspondientes sorteos de adjudicación de viviendas están sin aprobar por el Ayuntamiento. Se prevé que se aprueben en el mes de abril. Toda la información y las fechas se publicarán en la web municipal.

## Lezon, ekoizpen eta kontsumo arduratsua

### En Lezo, producción y consumo responsables

Gure kontsumoan hartutako erabaki bakoitzak ondorioak ditu hura sortu duten pertsonentzat, planetarentzat, merkaturatzen dutenentzat eta herritar guztientzat.
Hori horrela, Agenda 2030eko helburuekin lerrokatuz, Oarsoaldeatik lezoarrak gonbidatzen ditugu lokala dena kontsumitzera, betiere kontsumo arduratsua sustatuta. Lezoko merkataritza txikia eta ertaina ezagutzea eta babestea funtsezkoa da. Sustatu eta lagundu beren produktuak merkaturatzen dituzten establezimenduak, artistak eta sortzaileak. Nik LEZON *
Cada decisión en nuestro consumo implica unas repercusiones para las personas que lo han producido, para el planeta, para quienes lo comercializan y para toda la ciudadanía. Por ello, siguiendo los objetivos de la Agenda 2030, desde Oarsoaldea animamos a los y las lezoarras a consumir lo local, siempre fomentando el consumo responsable. Conocer al pequeño y mediano comercio de Lezo es fundamental. Promueve y apoya a los establecimientos, a las personas artistas y creativas que comercializan sus productos. Nik LEZON *



# LEZOINU 2023

## XXXVII. ASTE PEDAGOGIKO MUSIKALA



MARTXOAK **17** ostirala, **17:15** Gezala auditoriuma

### BASOKO SEKRETUAK
Amaia Elizagoien
3€



MARTXOAK **18** larunbata, **12:30** Aiton Bordatik abiatuta

### KANTUJIRA
Partaidetza irekia



MARTXOAK **18** larunbata, **19:30** Gezala auditoriuma

### KONTZERTUA
Beko Plaza Abesbatza (Zumaia) &
Sutargi Abesbatza (Lezo)



MARTXOAK **19** igandea, **11:00** Kalez kale

### DIANA
"Tomas Garbizu"
Musika Eskolako Txistulariak



MARTXOAK **19** igandea, **19:30** Gezala auditoriuma

### KONTZERTUA: Poliedro
Thrigger Taldea
8€



MARTXOAK **24** ostirala, **11:00** Gezala auditoriuma

### KONTZERTU PEDAGOGIKOA
"Tomas Garbizu" Musika Eskola




MARTXOAK **25** larunbata, **12:30** Gezala auditoriuma

### KONTZERTUA
Euskadiko Musikari Gazteak
+ Sutargi Abesbatza



MARTXOAK **25** larunbata, **19:30** Gezala auditoriuma

### KONTZERTUA:
**New Orleansetik Euskal Herrira**
Hiru Taldea



MARTXOAK **26** igandea, **12:30** Herri Eskolako patioan

### BANDA KONTZERTUA
"Danbolin" M.E. (Orio) eta
"Tomas Garbizu" M.E.(Lezo)



MARTXOAK **26** igandea, **19:30** Gezala auditoriuma

### DANTZA Abundance
Osa- Mugika
8€



MARTXOAK **27** astelehena, **18:00** Gezala auditoriuma

### KONTZERTUA
"Tomas Garbizu" Musika Eskola



MARTXOAK **28** asteartea, **18:00** Gezala auditoriuma

### MUSIKA MODERNOA
Francisco Escudero Musika Kontserbatorioa
(Donostia)




MARTXOAK **29** **13:00** **17:00** Gezala auditoriuma

### ZINEMA: Orkestra Lurtarra
Lotura Films



MARTXOAK **29** asteazkena, **19:00** Musika Eskola

### BEATBOX TAILERRA
Orodreth <Boris Bringas>



MARTXOAK **30** osteguna, **18:00** Gezala auditoriuma

### KONTZERTUA
"Tomas Garbizu" Musika Eskola



MAIATZAK **6** larunbata, **11:00** Musika Eskola

### UKELELE IKASTAROA
Marcos Feijoo

Sarrera duten kontzertuak www.lezo.eus.-en eskuratzen dira eta gainerakoak doakoak dira edukiera bete arte

Los conciertos con entrada se adquieren en www.lezo.eus. el resto son gratuitos hasta completar el aforo

ANTOLATZAILEA

BABESLEAK

Lezoko Unibertsitateko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA